

INFORMAZIOAK INFORMACIONES

LEGE BILTZARREKO ORGANEN ERABAKIAK ETA KOMUNIKAZIOAK ACUERDOS Y COMUNICACIONES DE LOS ÓRGANOS PARLAMENTARIOS

Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren instrukzioa, Eusko Legebiltzarreko areto eta instalazioetarako sarrera, presentzia eta erabilera arautzen dituen

Mahaiak, 2021eko urriaren 26ko bileran, onetsi du Eusko Legebiltzarreko areto eta instalazioetarako sarrera, presentzia eta erabilera arautzen dituen instrukzioa, eta erabaki du Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIAREN 2021EKO URRIAREN 26KO INSTRUKZIOA, EUSKO LEGEBILTZARREKO ARETO ETA INSTALAZIOETARAKO SARRERA, PRESENTZIA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUENA

OMEk 2020ko martxoaren 13an COVID-19aren pandemia ofizialki deklaratu zuenetik, arau-izaerako neurriak hartu izan dira etengabe, gaixotasun horri aurre egiteko asmoz.

Eusko Legebiltzarrak egoera epidemiologikoaren eboluzioaren ondoriozko egoera normatiboaren arabera aldatu izan du bere funtzionamendua; ondorioz, zenbait erabakiren bidez, prebentzio-neurriak eta -planak jarri ditu abian, bai antolamenduari, bai babes kolektiboari eta babes pertsonalari dagokienez, Ganberaren antolamenduan eta funtzionamenduan eragiten duten alderdiak behin-behinean erregulatuz une jakin bakoitzean.

Orain, lehendakariaren urriaren 6ko 39/2021 Dekretuaren bidez osasuneko larrialdi-egoera amaitu dela adierazi denez gero, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa da testu bakar batean egokitu, harmonizatu eta eguneratzea orain arte hartu izan diren eta lan parlamentarioari bereziki eragiten dioten neurri guztiak.

Azken finean, instrukzio honen xedea da 2021eko irailaren 14ko Mahaiaren Erabakiaren azken xedapenetako bigarrenean xedatutakoa betetzea, zeinaren arabera legelari nagusiari eskatzen baitzitzaien 2020ko azaroaren 3ko Instrukzioa ordezkaturako duen instrukzio-proposamen bat aurkezteko, hilabeteko epean, Mahaiaren erabaki guztiak egokituta eta bilduta.

Instrucción de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se regula el acceso, presencia y uso de las salas e instalaciones del Parlamento Vasco

La Mesa, en su reunión del día 26 de octubre de 2021, aprueba la instrucción por la que se regula el acceso, presencia y uso de las salas e instalaciones del Parlamento Vasco, y acuerda su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

INSTRUCCIÓN DE 26 DE OCTUBRE DE 2021 DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO POR LA QUE SE REGULA EL ACCESO, PRESENCIA Y USO DE LAS SALAS E INSTALACIONES DEL PARLAMENTO VASCO

Desde que la OMS declaró oficialmente el pasado 13 de marzo de 2020 la COVID-19 como pandemia se han venido adoptando de forma continua medidas de carácter normativo a fin de hacer frente a dicha enfermedad.

El Parlamento Vasco ha ido adaptando su funcionamiento al escenario normativo derivado de la evolución de la situación epidemiológica, y, en consecuencia, la Mesa del Parlamento, mediante diversos acuerdos, ha puesto en marcha medidas y planes de prevención, tanto de carácter organizativo como de protección colectiva y de protección personal, que de forma coyuntural han ido regulando provisionalmente diversos aspectos que inciden en la organización y el funcionamiento de la Cámara.

Una vez que mediante el Decreto 39/2021, de 6 de octubre, del lehendakari, se ha declarado la finalización de la situación de emergencia sanitaria, a tenor de lo dispuesto en el artículo 4 de la Ley 2/2021, de 24 de junio, de medidas para la gestión de la pandemia de COVID-19, es preciso adecuar, armonizar y actualizar en un solo texto las diversas medidas que se han ido adoptando con especial relevancia para la labor parlamentaria.

En definitiva, la presente instrucción tiene por objeto dar cumplimiento a lo dispuesto en la disposición final segunda del Acuerdo de Mesa de 14 de septiembre de 2021, por la que se encomendaba al letrado mayor para que en el plazo de un mes presentara una propuesta de actualización y recopilación de los diversos acuerdos de Mesa que sustituyera a la Instrucción de 3 de noviembre de 2020.



Horregatik guztiagatik, honako neurri hauek ezartzen dira:

Lehenengoa. Babes-neurri orokorrak

COVID-19a kutsatzeko arriskuari aurre egiteko babes-neurri orokorrak aplikatuko dira. Neurri horiek Mahaiak zehaztuko ditu, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak aldeaz aurretik txostena eginda, eta Ganberaren berezko funtzioetara egokitzea galarazi gabe.

Horretarako, kontuan hartuko dira hauek:

- a) 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurri buruzkoa.
- b) 2021eko urriaren 6ko Agindua, Osasuneko sailburuarena, lehendakariak larrialdi-egoera amaitu dela adierazi ondoren, normaltasun berria COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurri buruzkoa, eta, kasua bada, organo eskudunek prebentzio-neurriak eguneratzeko aurrerantzean emango dituzten arauak.
- c) SARS-CoV-2 koronabirusarekiko esposizio-arriskuagatik kontingentzia-plana Eusko Legebiltzarreko, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak egindakoa.

Bigarrena. Eusko Legebiltzarreko areto guztietara sartzeko neurriak eta edukierak

1. Erabiltzaileak Eusko Legebiltzarreko aretoetara sartzeko, ezinbestekoa izango dira akreditazioa, identifikazioa eta sarrera-kontrola, Legebiltzarreko Mahaiak 2021eko otsailaren 9an onetsitako instrukzioaren arabera (Instrukzioa, XII. legegintzaldian Legebiltzarreko egoitzarako eta bulegoetarako sarreraren kudeaketa ezartzen duena pertsonal akreditatuaren kasuan).
2. Sarrerak kudeatzeko, indarrean dauden arau eta instrukzioak beteko dira, une bakoitzean zehaztuko diren edukiera-mugak kontuan hartuz. Horren arabera, Eusko Legebiltzarreko areto eta bulego guztietan bereizgarri bat egongo da sarreran, ikusteko moduan, baimendutako edukiera adieraziko duena.
3. Mahaiak, osasun-egoeraren eboluzioaren arabera, sarrerak kontrolatzeko irizpide osagarriak ezarri ahal izango ditu.
4. Legebiltzarreko Mahaiak eguneratuko ditu Eusko Legebiltzarreko barruetako edukierak, Mantentze Lanetako Ataleko buruak proposatuta.

Por todo ello se establecen las siguientes medidas:

Primero. Medidas generales de protección

Se aplicarán las medidas generales de protección frente al riesgo de contagio por la COVID-19 que se determinen por la Mesa, previo informe del Servicio de Prevención de Riesgos Laborales y sin perjuicio de su adaptación a las funciones propias de la Cámara.

A estos efectos se tendrán en cuenta:

- a) La Ley 2/2021, de 24 de junio, de medidas para la gestión de la pandemia de COVID-19.
- b) La Orden de 6 de octubre de 2021, de la consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19 en la nueva normalidad una vez declarada por el lehendakari la finalización de la situación de emergencia, y, en su caso, las sucesivas normas que se dicten por los órganos competentes de actualización de las medidas preventivas.
- c) El Plan de contingencia por riesgo de exposición a coronavirus SARS-CoV-2 en el Parlamento Vasco, elaborado por el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

Segundo. Medidas de acceso a todas las dependencias del Parlamento Vasco y aforos

1. El acceso a las dependencias del Parlamento Vasco por las distintas personas usuarias exigirá la debida acreditación, identificación y control de acceso, de conformidad con lo dispuesto en la instrucción que establece la gestión de accesos a la sede y dependencias parlamentarias durante la XII Legislatura por parte del personal acreditado, aprobada por la Mesa del Parlamento el 9 de febrero de 2021.
2. La gestión de accesos se realizará en cumplimiento de la normativa e instrucciones vigentes y atendiendo a la delimitación de aforos que se determine en cada momento. Conforme a él, todas las salas y dependencias del Parlamento Vasco contarán con un distintivo visible a la entrada que indicará el aforo permitido.
3. La Mesa, en función de la evolución de la situación sanitaria, podrá establecer criterios complementarios para el control de los accesos.
4. La actualización de los aforos de los recintos del Parlamento Vasco se llevará a efecto por la Mesa del Parlamento, a propuesta de la jefa de la Sección de Mantenimiento.



Hirugarrena. Bilkura parlamentarioak

1. Legebiltzarreko Mahaiaren 2021eko irailaren 14ko Erabakiaren arabera, deituko diren bilkura parlamentario guztiak, osoko bilkurarenak batzordeenak, zein ponentzienak, legebiltzarkideen presentziarekin egingo dira, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraituz, betiere.
2. Kasu batzuetan, legebiltzarkide batek, modu banakatuan, isolatuta egon behar duenean derrigorrezko konfinamendua betetzeko edo osasun-agintariek COVID-19aren gaixotasuna dela-eta aurreikusitako egoeretako batean dagoelako (gaixo baten kontaktu estua izatea, adingabeen edo mendeko pertsonen zaintza eta abar), botoa eskuordetu ahal izango du, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 89.1.c) artikuluan xedatutakoari jarraituz.
3. Halarik ere, Legebiltzarreko Mahaiak, Erregelamenduaren 75 bis eta 89.c) artikuluetan xedaturikoa aplikatuz, osoko bilkuretan eta batzorde-aretoetan egongo diren legebiltzarkideen kopurua murriztea manatu ahalko du, baldin osasun-egoerak hori egitea gomendatzen badu.
4. Era berean, Legebiltzarreko Mahaiak COVID-19aren aurkako prebentziorako kontingentzia-neurriak zehaztu ahal izango ditu, osoko bilkurak egiten direnerako. Neurri horiek egokitu egingo dira osasun-egoeraren eboluzioaren arabera.

Oraingo aldi honetarako neurriak instrukzioaren I eranskinean jasota daude.

Laugarrena. Jaurlaritzaren eta talde parlamentarioen gonbidatuak osoko bilkura egiten den egunetan

1. Edukierak behar bezala kontrolatzeko asmoz, Jaurlaritzaren Idazkaritza eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak, Jaurlaritzaren gonbidatuei dagokienez, zein talde parlamentarioek, beren gonbidatuei dagokienez, Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalari (protokolo@legebiltzarra.eus) jakinaraziko diote, 48 ordu aurretik, osoko bilkuretara joango diren laguntzaileen nortasuna.
2. Gonbidatuta dauden Eusko Jaurlaritzako goikarguek, aldi baterako langileek eta funtzionarioek Jaurlaritzaren Idazkaritza eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez jakinaraziko dute beren

Tercero. Sesiones parlamentarias

1. De conformidad con el acuerdo de la Mesa del Parlamento de 14 de septiembre de 2021, todas las sesiones parlamentarias que se convoquen, tanto de pleno como de comisiones y de ponencias, se celebrarán de forma presencial de los parlamentarios y parlamentarias, desarrollándose estas de conformidad con el Reglamento del Parlamento Vasco.
2. En los casos en los que de manera individualizada alguna parlamentaria o parlamentario deba permanecer en situación de aislamiento como consecuencia de un confinamiento obligatorio o de alguno de los supuestos previstos por la autoridad sanitaria por causa de la enfermedad por COVID-19 (contacto estrecho con alguna persona enferma, cuidado de menores o personas dependientes, etcétera) podrá delegar el voto, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 89.1.c) del Reglamento del Parlamento Vasco.
3. No obstante, la Mesa del Parlamento, en aplicación de lo dispuesto en los artículos 75 bis y 89.c) del Reglamento, podrá establecer la reducción del número de parlamentarias y parlamentarios presentes en las sesiones plenarias y en las salas de comisión cuando así lo aconseje la situación sanitaria.
4. Así mismo, la Mesa del Parlamento, para el desarrollo de las sesiones, podrá fijar medidas de contingencia para la prevención frente a la COVID-19. Estas medidas se irán adaptando conforme a la evolución de la situación sanitaria.

Para el presente periodo, las medidas están recogidas en el anexo I de la instrucción.

Cuarto. Personas invitadas los días de pleno por parte del Gobierno y de los grupos parlamentarios

1. A efectos de establecer un correcto control de aforos, tanto la Secretaría de Gobierno y Relaciones con el Parlamento en lo relativo a las personas invitadas del Gobierno como los grupos parlamentarios en lo relativo a sus invitados comunicarán con 48 horas de antelación a la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco protokolo@legebiltzarra.eus la identidad de los acompañantes que asistirán a las distintas sesiones plenarias.
2. Los altos cargos, personal eventual y funcionarios y funcionarias del Gobierno Vasco que sean invitados comunicarán su presencia por medio de la Secretaría de Gobierno y Relaciones con el Parlamento e indicarán



presentzia, bilkuran zehar non kokatzea nahi duten adieraziz. Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalaren ahalmena da bisitariantzako eremu komunetako behin betiko kokapena zehaztea.

3. Protokolo Atalak artatuko ditu talde parlamentarioen gonbidatuak. Legebiltzarrera iristen direnean, Ertzaintzak unitate hori ohartaraziko du eta horrek bere gain hartuko du gonbidatuak laguntzeko eta kokatzeko ardura. Gonbidatuak zuzenean taldearen bulegoetara sartzen badira, bulego horietarako baimenduta dagoen gehieneko edukiera errespetatu beharko da, eta taldearen beraren ardura izango da arau hori betetzen dela zaintzea.
4. Mahaiak ezarriko ditu osoko bilkuren aretoko harmailetakoa edukiera eta bertaratutakoen banaketa, Protokolo Atalak proposatuta, osasun-agintarien gomendioak jarraituz.

dónde desean estar ubicados durante la sesión. La determinación de la ubicación final en los espacios comunes de las personas visitantes es facultad de la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco.

3. Las personas invitadas por los grupos parlamentarios serán atendidas por la Sección de Protocolo. A su llegada a la sede, la Ertzaintza avisará a dicha unidad, que asumirá el acompañamiento y la ubicación de las personas invitadas. En caso de que estas personas accedan directamente a las estancias del grupo se deberá mantener el aforo máximo permitido en estas dependencias, siendo el propio grupo el responsable de observar el cumplimiento de esta norma.
4. El aforo de las gradas del salón de plenos y la distribución de las personas asistentes se determinará por la Mesa, a propuesta de la Sección de Protocolo, siguiendo las recomendaciones de las autoridades sanitarias.

Bosgarrena. Batzordeak eta ponentziak

1. Jaurlaritzaren agerraldiak egoitza parlamentarioan eta estatutu-instituzioen ordezkariak presentzialak izango dira, ahal dela. Gehienez bi zuzendaritza-kide etorri ahal izango dira sailburuei laguntzera, esku-hartzea burutzeko beharrezkotzat jotzen badute.
2. Eragile sozial eta ekonomikoaren agerraldiak, elkarteen, sindikatuen, enpresaburuen elkartearen ordezkariak, interes kolektibo edo partikularren ordezkariak eta abarrenak, ahal izanez gero, bide telematikotatik egingo dira, batzordeko Mahaiaren iritziz era presentzialean egitea gomendagarria denean izan ezik.
3. Agerraldi bakoitzeko, batzorde-aretoetara bi pertsona sartu ahal izango dira gehienez, Jaurlaritzako kideentzat aurretik ezarritakoa salbu. Gainerakoek bide telematikotik parte hartu ahal izango dute bileran. Agerraldi-eragile ez-presentzialek txanda partekatuko dute batzordeko presentzialekin, baina arazko denborak ez dira luzatuko esku-hartze telematikoengatik. Esku-hartze guztiak aretoko pantailan proiektatuko dira.
4. Agerraldi bat bukatzen den bakoitzean eta/edo puntu batean esku hartzen ari den ordezkaria aldatzen den bakoitzean, Legebiltzarreko zerbitzuek garbitu eta desinfektatu egingo dituzte aurrekoek erabilitako mahaiak, mikrofonoak eta aulkiak, eta behar bezala desinfektatuta daudenean soilik deitu ahal izango dira beste agerraldi-eragileak.

Quinto. Comisiones y ponencias

1. Las comparecencias del Gobierno en sede parlamentaria y de representantes de instituciones estatutarias, se realizarán preferentemente de forma presencial. Las consejeras y consejeros podrán estar acompañados por un máximo de dos personas integrantes del personal directivo que estimen necesario para el desarrollo de su intervención.
2. Las comparecencias de los agentes sociales y económicos, representantes de asociaciones, sindicatos, organizaciones empresariales, representantes de intereses colectivos o particulares, etcétera, se materializarán preferentemente por medios telemáticos, salvo que a criterio de la Mesa de la comisión fuera aconsejable que se lleve a cabo de forma presencial.
3. El número de personas que pueden acceder a las salas de comisiones por comparecencia se fija en un máximo de dos, salvo lo establecido previamente para los miembros del Gobierno. El resto podrá participar en la sesión por vía telemática. Los comparecientes no presenciales compartirán turno con los presenciales en comisión, sin que las intervenciones telemáticas puedan implicar la extensión de los tiempos reglamentarios. Todas las intervenciones serán proyectadas en la pantalla de la sala.
4. Cada vez que finalice una comparecencia y/o haya una sustitución del representante interviniente en el punto, los servicios del Parlamento procederán a la limpieza y desinfección de la mesa, micrófonos y asientos empleados por los anteriores, y solo cuando hayan sido debidamente desinfectados podrán ser citados los nuevos comparecientes.



- | | |
|---|--|
| <p>5. Era berean, interpretea aldatzen den bakoitzean, beste kabina bat erabiliko da, eta hutsik geratu dena desinfektatu beharko da.</p> | <p>5. Igualmente, cada vez que se produzca una sustitución de un o una intérprete se variará de cabina, lo que implicará proceder a desinfectar la que ha quedado vacía.</p> |
| <p>6. Bilera hainbat orduz luzatzen bada, batzordeburuak aukera izango du bilkura 10 minutuz etetea erabakitzeke, aretora kanpoko airea intentsitate handiagoz sartzeko. Batzordeko legegariak Mantentze Lanetako Atalari jakinaraziko dio, aireztapen-emaria alda dezan, aurretik zehaztuko den denbora-tarte baterako, % 100 kanpoaldeko airea sar dadin.</p> | <p>6. Opcionalmente, cuando la sesión se prolongue varias horas, la Presidencia de la comisión podrá acordar la suspensión de la sesión por 10 minutos, al objeto de introducir con mayor intensidad aire del exterior a la sala. El letrado o letrada de la comisión lo pondrá en conocimiento de la Sección de Mantenimiento para que proceda, durante el tiempo que se predetermine, a modificar el caudal de ventilación con aire 100 % del exterior.</p> |
| <p>7. Akreditatutako prentsa eta talde parlamentarioetako langileak ezin izango dira presentzialki egon batzorde parlamentarioen bileretan. Jarraipen informatiboa egin behar denean, Eusko Legebiltzarraren zerbitzuek emandako seinalearen bidez egingo dute, langelataran banatuko baita ohiko bideetatik.</p> | <p>7. La prensa acreditada y el personal de los grupos parlamentarios no podrán asistir presencialmente a ninguna de las sesiones de las distintas comisiones parlamentarias. El seguimiento informativo, cuando proceda, lo harán a través de la señal realizada por los servicios del Parlamento Vasco, que se distribuirá por los cauces habituales a las diversas estancias de trabajo.</p> |
| <p>8. Batzordeen bileren kasuan, hedabide grafikoak korridore bukaeran kokatu ahal izango dira, pertsonen arteko distantziari buruzko neurriak errespetatuz eta legebiltzarkideei sartzearagotzi gabe, zeinak, lehentasunez, aurrealdetik sartu beharko baitira aretora. Deitutako jardueran parte hartzen duten guztiak aretora sartu ondoren, hedabide grafikoak aretoko atzealdeko atetik sartu ahal izango dira, Prentsa eta Komunikazio Atalaren jarraibideak jarraituz, zeinak aretoan egoteko denbora mugatuko duen.</p> | <p>8. En el caso de las reuniones de las comisiones, los medios gráficos podrán ocupar un espacio en el final del pasillo, respetando las medidas de distancia interpersonal y no interfiriendo en el acceso de las parlamentarias y de los parlamentarios, que prioritariamente deberán entrar en la sala desde la zona delantera. Una vez que hayan accedido todas las personas que participen en la actividad convocada, los medios gráficos podrán acceder por la puerta trasera de la sala, siguiendo las instrucciones de la Sección de Prensa y Comunicación, que limitará el tiempo de estancia en la misma.</p> |

Seigarrena. Aretoen antolaketa. Taldeartekoak, taldeen bilerak eta abar

1. Legebiltzarraren egoitzako bilera informalak eta taldearteko bilerak arautzeko Legebiltzarreko Mahaiak 2021eko ekainaren 22an onetsi zuen instrukzioan xedatuta dagoenari jarraiki egingo dira taldearteko eta talde parlamentarioen bilerak.
2. Aurrekoa gorabehera, talde parlamentario eta erabiltzaileen (Jaurlaritza, kazetariak eta abar) beharrezko teknikoak eta lekuari dagozkionak, modalitate guztietako bileretan, gutxienez 24 ordu aurretik jakinaraziko zaizkio Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalari (protokolo@legebiltzarra.eus), zeinak inplikaturiko zerbitzuei jakinaraziko baitie.

Sexto. Ordenación de las salas. Intergrupos, reuniones de grupo, etcétera

1. Las reuniones de los intergrupos y de grupo parlamentario se llevarán a cabo de conformidad con lo dispuesto en la instrucción por la que se regula el funcionamiento de las salas para reuniones informales y de los intergrupos en la sede del Parlamento, aprobada por la Mesa del Parlamento el 22 de junio de 2021.
2. Sin perjuicio de lo anterior, las necesidades técnicas y de espacio que se precisen por parte de los grupos parlamentarios o usuarios solicitantes (Gobierno, periodistas, etcétera), en cualquiera de las modalidades de reunión, serán comunicadas con un mínimo de 24 horas de antelación a la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco protokolo@legebiltzarra.eus, que lo pondrá en conocimiento de los distintos servicios implicados.



Nolanahi ere, adieraziko dira aurreikusitako hasiera- eta amaiera-ordua, parte-hartzaileen kopurua eta legebiltzarkiderik egongo den, zeren jarduera parlamentarioak lehentasuna izango baitu gainerakoekiko. Beharrezkoa bada prentsak jarraipena egitea, beren-beregi adierazi beharko da.

Bilera hasita, bertan daudenen identifikazioa (NAN) bidaliko dute protokolo@legebiltzarra.eus posta-helbidera, zerbitzu horrek eskuratutako formatuan.

3. Taldeartekoen eta taldeen bilerak batzorde- eta ponentzia-aretoetan egingo dira, Protokolo Atalak zehazten duenaren arabera.

Zazpigarrena. Jarduera ez-parlamentarioak

Mahaiak baimendutako jarduera ez-parlamentarioak egiteko, oro har, Legebiltzarrak osasun-agintarien irizpideak jarraituz ezarritako higie-ne eta segurtasun-arauak beteko dira eta, hala dagokionean, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezarrikoak.

Bisita gidatuen erregimena Protokoloko Atalburuaren proposamenaren arabera egingo da. Oraingo aldi honetarako erregimena instrukzio honen II. eranskinean dago.

Zortzigarrena. Hedabideak, prentsa, irratia eta telebista.

1. Legebiltzarrera sartzeko eta bertan egoteko ordutegia jarduera parlamentarioari lotuta egongo da beti, eta ezein kasutan ez da sartzerik izango komunikabideei irekitako deialdirik ez badago. Era berean, ez da sartzerik edo instalazioak erabiltzerik izango Prentsa eta Komunikazio Atalaren lan-ordutegitik kanpo.
2. Prentsa eta Komunikazio Atalak egindako akreditazioak honako eskubide hauek emango dizkie haren titularrei:
 - Egoitza parlamentariora sartzea, betiere kokatuta egongo diren guneetako edukierak errespetatuz.
 - Osoko bilkuren aretoan prentsarako egokitutako tribunan sartzea.
 - Egoitza parlamentarioan egiten diren prentsaurrekoen, adierazpenen eta bestelako informazio-ekitaldien jarraipena egitea, Prentsa eta

Se indicará en todo caso la hora de inicio y fin previstos, número de participantes y si hay presencia de parlamentarios o parlamentarias, ya que la actividad parlamentaria tendrá preferencia sobre el resto. En caso de necesitar cobertura de prensa se habrá de señalar expresamente.

Una vez iniciada la reunión enviarán a la dirección de correo protokolo@legebiltzarra.eus la identificación (DNI) de las personas presentes en la reunión, en el formato facilitado por dicho servicio.

3. Las reuniones de intergrupos y reuniones de grupo se llevarán a cabo en las distintas salas de comisiones y ponencias, según lo determine la Sección de Protocolo.

Séptimo. Actividades extraparlamentarias

Las actividades extraparlamentarias que se autoricen por la Mesa se desarrollarán cumpliendo las medidas de higiene y seguridad que se establezcan por el Parlamento siguiendo los criterios de las autoridades sanitarias con carácter general y, en su caso, por el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

El régimen de las visitas guiadas se realizará de acuerdo con la propuesta que se formule por la jefa de la Sección de Protocolo. Para el presente periodo, el régimen se adjunta como anexo II a esta instrucción.

Octavo. Medios de comunicación, prensa, radio y televisión

1. El horario de acceso y presencia en el Parlamento siempre estará vinculado a la actividad parlamentaria, no pudiéndose acceder a él en ningún caso si no hay convocatorias abiertas a los medios de comunicación. Tampoco se podrá acceder ni hacer uso de las instalaciones fuera del horario de trabajo de la Sección de Prensa y Comunicación.
2. La credencial expedida por la Sección de Prensa y Comunicación dará derecho a sus titulares a:
 - Acceder a la sede parlamentaria, siempre respetando los aforos de los espacios en los que vayan a estar ubicados.
 - Acceder a la tribuna del salón de plenos habilitada para prensa.
 - Efectuar la cobertura de ruedas de prensa, declaraciones y cualesquiera otros actos informativos que tengan lugar en la sede parlamentaria en las



- | | |
|--|--|
| <p>Komunikazio Atalak hartarako ezarri dituen baldintzetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mota guztietako ekitaldi instituzionalen jarraipen informatiboa egitea, Prentsa eta Komunikazio Atalak hartarako ezarri dituen baldintzetan. • Eusko Legebiltzarrak hedabideentzat ipini dituen lanabesak erabiltzea, errespetatuz hedabide mota bakoitzari dagozkion eremuak. <p>3. Jarraipen iraunkorreko hedabideek, hala nola erredaktore grafikoek eta TBko kameralariek:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitza parlamentarioko espazio komun guztietan egin ahal izango dute jarraipen informatiboa, kafetegian eta gela pribatuetan (bulegoetan, taldeen geletan) izan ezik, salbu haien erabiltzaileen baimena dutenean. • Osoko bilkuretan, aretoan haientzat prestatutako lekuetan egin beharko dute lan, pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela ziurtatzen duten taldeak eginez. • Ezin izango da telebistako grabaziorik egin prentsa-palkoetatik. Argazkilariak modu ordenatuan sartu ahal izango dira prentsa-palkoetan. Bidaltzeko eta deskargatzeko, erreserbatutako guneak izango dituzte Tomas Moro aretoan. • Osoko bilkuretan ezin izango dituzte irrati-kabinak erabili baliabide grafikoak hartzeko. • Mahaiaren, Bozeramaileen Batzarraren, ponentzien edo batzordeen bileretan, bilera hasi aurretik baino ezin izango dira irudiak hartu. <p>4. TBko teknikariek seinale instituzionala grabatu ahal izango dute eta behar besteko kanpo-konexio egin hartarako prestatutako gelatik, zeina prentsa-aretoko mahai nagusiaren eskuinaldean baitago.</p> <p>5. Irratiko teknikariek eta erredaktoreek lana egiteko behar dituzten bitarteko teknikoak izango dituzte lehengo solairuan prestatutako kabinetan.</p> <p>6. Prentsa-erredaktoreek eta berri-agentziek lana egiteko terminalak izango dituzte hartarako prestatutako aretoan, egoitza nagusiaren atartearen ezkerrean.</p> | <p>condiciones establecidas para ello por la Sección de Prensa y Comunicación.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Efectuar coberturas informativas de todo tipo de actos institucionales en las condiciones que establezca la Sección de Prensa y Comunicación. • Emplear las herramientas que el Parlamento Vasco ha instalado a disposición de los medios respetando los espacios que corresponden a cada tipo de medio de comunicación. <p>3. Los medios con cobertura permanente, como redactores gráficos y cámaras de TV:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Podrán efectuar coberturas informativas en todos los espacios comunes de la sede parlamentaria, excepto en la cafetería y en dependencias privadas (despachos, sedes de grupos), salvo expresa autorización de sus usuarios. • Durante los plenos deberán realizar su trabajo dentro del salón, en los lugares habilitados para ellos, en grupos que aseguren el respeto de la distancia interpersonal. • No podrán realizarse grabaciones de televisión desde los palcos de prensa. Las fotografías y los fotógrafos podrán acceder a ellos de manera ordenada. Para su envío y descarga, contarán con espacios reservados en la sala Tomás Moro. • Durante las sesiones plenarias no se podrán utilizar las cabinas de radio para la toma de recursos gráficos. • Durante las sesiones de Mesa, Junta de Portavoces, ponencias o comisión se podrán tomar imágenes exclusivamente antes del comienzo de la reunión. <p>4. El personal técnico de TV podrá grabar la señal institucional y realizar las conexiones exteriores que requieran desde la sala habilitada para ello, ubicada a la derecha de la mesa cabecera de la sala de prensa.</p> <p>5. El personal técnico y las redactoras y los redactores de radio dispondrán de los medios técnicos necesarios para su trabajo en las cabinas habilitadas en la primera planta.</p> <p>6. Las redactoras y los redactores de prensa y agencias de noticias dispondrán de terminales para realizar su trabajo en la sala habilitada para este fin en la zona izquierda del vestíbulo de la sede principal.</p> |
|--|--|

7. Noizean behingo jarraipena egiten duten hedabideek sartzeko baimena eskatu beharko dute. Ohiko instalazioen betetze-mailaren eta baimendutako edukieren arabera, Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek jarraipen-postuak prestatuko dituzten egoitzako beste eremu batzuetan, normalki Tomas Moro aretoan, betiere Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek areto horretan baimendutako beste jarduerekin bateragarria bada. Prentsa eta Komunikazio Atala da instalazio hartako postuak esleitu behar dituen organoa.
8. Talde parlamentarioen prentsa-laguntzaile akreditatuek berariaz jakin beharko diote Prentsa eta Komunikazio Atalari euren betebeharren artean taldeei laguntza ematea dagoela informazioaren eta komunikazioaren arloan. Hala eginda, baimena izango dute sartzeko egoitza parlamentarioan egiten diren prentsaurrekoetan, adierazpenetan eta bestelako ekitaldi informatiboetan.
- Langile horiek baimena izango dute ere osoko bilkuretara joateko eta horien jarraipena egiteko hedabideentzako erreserbatutako guneetatik, betiere hedabideei lehentasuna emanez.
- Laguntzaile horiek ez dute sartzetik izango osoko bilkuren aretoan legebiltzarkideen irudiak hartzeko grafikoentzat erreserbatutako aldeetan, eta erredaktore grafikoek edozein jarduera instituzionalean bete beharreko arau berberak bete beharko dituzte, betiere hedabideei zor zaien lehentasuna emanez.
9. Kargu instituzionalen prentsa- eta komunikazio-laguntzaileak osoko bilkuretara joan ahal izango dira, eta ekitaldion jarraipena egin ahal izango dute hedabideentzako erreserbatutako guneetatik, betiere hedabideei lehentasuna emanez.
10. Komunikazio-jarduera guztietan pertsonen arteko distantzia gorde beharko da, eta hura bermatzen ez duten jarduketak baztertu beharko dira.
11. Lan horien arduradunek Legebiltzarreko zerbitzuei lagundu beharko diete, egoitzan material informatiboak banatu behar direnean. Materialak banatzeko, laguntza eskatu ahal izango diete Prentsa eta Komunikazio Atalari eta normalean banaketa hori egiten duten mandatariei.
- Oraingo aldirako III. eranskinean aurreikusitako eremuak egokitzeak irizpideak ezartzen dira, baita Mahaiak 2020ko irailaren 1ean onetsi
7. Los medios con cobertura esporádica deberán solicitar el acceso. En función del grado de saturación de las instalaciones ordinarias y de los aforos permitidos, los servicios del Parlamento habilitarán los correspondientes puestos de seguimiento en otros espacios de la sede, normalmente en la sala Tomás Moro, siempre y cuando sea compatible con otras actividades que los servicios del Parlamento Vasco hayan autorizado en la sala. La Sección de Prensa y Comunicación es el órgano responsable de asignar los puestos en esta instalación.
8. El personal asistente de prensa de los grupos parlamentarios que esté acreditado como tal y entre cuyas competencias se incluya la realización de tareas de apoyo en el ámbito de la información deberá comunicarlo expresamente a la Sección de Prensa y Comunicación, que le habilitará para acceder a ruedas de prensa, declaraciones y cualesquiera actos informativos que se celebren en la sede parlamentaria.
- Este personal estará igualmente habilitado para asistir a los plenos y efectuar el correspondiente seguimiento desde los espacios reservados para los medios de comunicación, aunque siempre dando prioridad a los medios.
- Este personal no podrá acceder a las zonas reservadas a los gráficos en el salón de plenos para tomar imágenes de los parlamentarios y las parlamentarias, y deberá observar las mismas normas que las redactoras y los redactores gráficos en cualquier actividad institucional, dando siempre la prioridad debida a los medios informativos.
9. El personal asistente de prensa y comunicación de los cargos institucionales podrá asistir a los plenos y efectuar el correspondiente seguimiento desde los espacios reservados a los medios de comunicación, aunque siempre dando prioridad a los medios.
10. En toda actividad de comunicación se ha de mantener la distancia interpersonal, evitando aquellas actuaciones en las que no esté asegurada.
11. Las personas responsables de estas tareas deberán colaborar también con los servicios de la Cámara a la hora de distribuir materiales informativos en la sede. Para su distribución se contará con la colaboración de la Sección de Prensa y Comunicación y las ujieres y los ujieres que habitualmente se encargan de realizar esta función.
- Para el presente periodo se establecen los criterios de adecuación de espacios previstos en el anexo III, así como el protocolo para el uso



zuen prentsa-aretoa erabiltzeko protokoloa ere.

de la sala de prensa aprobado por la Mesa el 1 de septiembre de 2020.

Bederatzigarrena. Kanpoko enpresetako langileak

1. Legebiltzarrera sartzen diren enpresek eraikinerara sartuko diren langileen eta, kasua bada, ibilgailuen zerrenda jakinarazi beharko diote Mantentze Lanetako Atalari, komunikazio bat bidaliz 24 ordu aurretik (mantenimendu@legebiltzarra.eus).
2. Aldez aurretik, egingo diren lan zehatzei buruzko protokolo bat edo hartuko diren neurrien dokumentazioa aurkeztu beharko dute, COVID-19aren birusaren transmisioaren aurkako neurri prebentiboen berriazko aurreikuspena barne. Kontratuaren ardura duen arloak edo atalak onetsi beharko ditu neurri horiek.
3. Arlo edo atal bakoitzak asteko erregistro bat egingo du berak kontratatu dituen enpresetako langileen kopurua eta identitatea jasoz, zein eremutara sartu diren adieraziz, COVID-19ak eragindako langileekin izan daitezken kontaktuak kontrolatu ahal izateko.

Hamargarrena. Kafetegira sartzea eta hori erabiltzea

1. Mahaiak, Mantentze Lanetako Ataleko buruak proposatuta, kafetegira sartzeko eta hori erabiltzeko irizpideak ezarriko ditu, Legebiltzarreko zerbitzu horren berezitasuna kontuan hartuz. Horretarako, osasun-agintariek eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak kafetegi- eta ostalaritza-zerbitzuetarako ezartzen dituzten arauak beteko dira mahai bakoitzeko edo mahai-multzo bakoitzeko jankideen gehienezko kopuruari, barra-zerbitzuari eta abarri dagokienez.
2. Kafetegiko erabiltzaileek ez dute mahaiak mugitzerik edo tokiz aldatzerik izango. Era berean, gorde eta errespetatu beharko dituzte, erantzukizunez jokatzuz, pertsonen arteko beharrezko distantzia, maskara une oro erabiltzeko ohitura –janaria hartzeko unean izan ezik–, aurrez finkatutako aulki eta mahaien antolamendua, baita sarreran adierazitako gehienezko edukiera ere.
3. Jende gehien dagoen egunetan txandak ezarriko dira bazkaltzeko ordurako.

Hamaikagarrena. Erretzeko debekua

Debekatuta dago Legebiltzarraren perimetroan erretzea, bereziki horretarako prestatutako aldeetan izan ezik.

Noveno. Personal de empresas externas

1. Las empresas que accedan al Parlamento deberán notificar el listado del personal y vehículos, en su caso, que van a acceder al edificio con 24 horas de antelación por medio de comunicación a la Sección de Mantenimiento (mantenimendu@legebiltzarra.eus).
2. Deberán haber presentado previamente un protocolo o documentación de las medidas a adoptar que esté referido a los trabajos en concreto a realizar, incluyendo expresa previsión de medidas preventivas contra la transmisión del virus de la COVID-19. Estas medidas habrán de ser aprobadas por el área o sección encargada del contrato.
3. Cada área o sección llevará un registro semanal del número e identidad de las personas de las empresas por ellas contratadas, con indicación de las áreas a las que hayan accedido, con el objeto de poder controlar posibles contactos con personal afectado por la COVID-19.

Décimo. Acceso y uso de la cafetería

1. La Mesa, a propuesta de la jefa de la Sección de Mantenimiento, establecerá los criterios de acceso y uso de la cafetería teniendo en cuenta la singularidad de dicho servicio en el Parlamento. Para dicha finalidad se atenderá a las normas que con carácter general se establezcan por las autoridades sanitarias para los servicios de cafetería y restauración respecto del número máximo de comensales por mesa o grupo de mesas, servicio en la barra, etcétera, y por el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.
2. Las personas usuarias de la cafetería no podrán mover ni alterar la disposición de las mesas. Igualmente, deberán atender y respetar, con responsabilidad, el distanciamiento interpersonal debido, el mantenimiento de la mascarilla por norma salvo los momentos de ingesta de alimentos, la disposición prefijada de los asientos y mesas, así como el aforo máximo indicado a la entrada.
3. En los días de mayor afluencia se establecerán turnos para el horario de comida.

Undécimo. Prohibición de fumar

Queda prohibido fumar en el espacio perimetral del Parlamento, salvo en las zonas especialmente habilitadas para dicha finalidad.



Xedapen gehigarria

Instrukzio hau eta bere eranskinak eguneratu egingo dira egoera soziosanitarioak horretarako bide ematen duen heinean eta osasun-agintariak COVID-19aren aurkako prebentziorako ezartzen dituzten arau eta irizpideen arabera.

Xedapen indargabetzailea

Instrukzio honek indargabetu egiten du 2020ko azaroaren 3ko Instrukzioa, Eusko Legebiltzarreko aretoetako sarrera, presentzia, erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen, eta ordezkatu egiten ditu instrukzioan arautzen diren gaiak erregulatu dituzten Mahairen erabaki guztiak, betiere COVID-19aren aurkako prebentziorako kontingentzia-planarekin zerikusia badute.

Azken xedapena

Instrukzio hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

Kontingentzia-neurriak osoko bilkuren aretoan eta batzorde-aretoetan

1. Legebiltzarkideek eta osoko bilkuren aretora sartzeko baimena duten gainerako langileek ipinita dagoen hidrogela erabili beharko dute aretora sartzen diren bakoitzean; horretarako, hidrogela banatzeko guneak ipini dira aretora sartzeko ate bakoitzean.
2. Osoko bilkuretan, legebiltzarkideek identifikazio-txartela sartuko dute eserlekuan, sistemak zehatz-mehatz mugatu ditzan quorum presentziala eta eskuordetutako botoak.
3. Osoko bilkurara sartzeko eta osoko bilkuratik ateratzeko unean, bileraren hasieran eta amaieran zein puntuz aldatzean eta bozketarako deietan, legebiltzarkideak pilatzea saihestu beharko da, batez ere igarotze-guneetan.
4. Legebiltzarkideek, baita hemiziklora sartu ahal diren langile guztiak, aldean eraman beharko dute, une oro, nahikoa osasun-berme eskaintzen dituen maskara bat.
5. Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea toki itxietan egiten diren bilkura eta ekitaldietako esku-hartze guztietan, 1,5 metroko pertsonen arteko segurtasun-distantzia betetzen ez denean.
6. Hitz egiteko txanda bukatu ondoren, Ganberako zerbitzuek oholza garbituko dute

Disposición adicional

Esta instrucción y sus anexos serán actualizados a medida que la situación sociosanitaria lo permita, y en función de las normas y criterios que las autoridades sanitarias establezcan para la prevención frente a la COVID-19.

Disposición derogatoria

Esta instrucción deroga la Instrucción de 3 de noviembre de 2020 por la que se regula el acceso, la presencia, uso y funcionamiento de las distintas salas del Parlamento Vasco, y sustituye todos los acuerdos de Mesa que hayan regulado las materias objeto de la misma, siempre y cuando estén relacionadas con el Plan de contingencia del Parlamento Vasco de prevención frente a la COVID-19.

Disposición final

La presente instrucción entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

ANEXO I

Medidas de contingencia en el salón de plenos y salas de comisiones

1. Las parlamentarias y parlamentarios, y demás personal habilitado para acceder al salón plenario, deberán hacer uso del hidrogel dispuesto cada vez que accedan a él; para ello se han habilitado puntos de expedición en cada una de las puertas de acceso.
2. En las sesiones plenarias, los parlamentarios y las parlamentarias introducirán su tarjeta identificativa en el escaño a efectos de facilitar que el sistema determine con exactitud el quorum presencial y los votos delegados.
3. En el momento de la entrada y salida del pleno, bien sea al inicio y al fin de la sesión, bien en los cambios de punto y llamadas a votación, se deberá evitar la concentración de parlamentarias y parlamentarios, especialmente en los espacios de tránsito.
4. Los parlamentarios y parlamentarias, así como todo el personal que tenga acceso al hemiciclo, deberán portar, en todo momento, una mascarilla que ofrezca suficientes garantías sanitarias.
5. Es obligatorio el uso de la mascarilla en todas las intervenciones que se realicen en sesiones y actos en espacios cerrados cuando no se cumpla la distancia interpersonal de seguridad de 1,5 metros.
6. Tras la finalización del turno de palabra, los servicios de la Cámara procederán a limpiar el



eta ezin izango da berriz erabili behar bezala desinfektatuta egon arte.

7. Kontroleko osoko bilkuretan, Euskal Telebistak zuzenean igorritako galderak amaitu ondoren, gainerako galderak eserlekitik egin beharko dira. Eserlekitik mintzatzen diren hizlariak ere maskara aldean izango dute hitz egiten ari diren bitartean.
8. Osoko bilkurak egiten ari diren bitartean eta, puntu bakoitzak irauten duenaren arabera, lehendakariak etenak egitea erabaki ahal izango du, aretoa aireztatze aldera.

estrado y no se podrá volver a utilizar hasta que la desinfección se produzca correctamente.

7. En las sesiones de plenos de control, una vez finalizadas las preguntas retransmitidas en directo por Euskal Telebista, el resto de preguntas deberá formularse desde los escaños. Las oradoras y los oradores participantes desde el escaño portarán igualmente durante toda la intervención la mascarilla.
8. Durante el desarrollo de las sesiones plenarias y, en función de la duración de cada uno de los puntos, la presidenta podrá determinar la realización de pausas para la ventilación de la sala.

II. ERANSKINA

Eusko Legebiltzarrera datozen taldeen bisitak kudeatzea

1. Eusko Legebiltzarreko bisita gidatuen zerbitzuaren ordutegia bi txandetan finkatuta geratuko da, ordu bat izateko eremuak garbitu eta aireztatzeko.

Lehenengo txanda: 10:00etan
Bigarren txanda: 12:00etan

2. Bertaratuen gehieneko kopurua 25 izango da, betiere iraunkortzat jotzen diren taldeak badira. Horrelakoak ez badira, baimendutako gehieneko kopurua 10 pertsona izango dira.
3. Derrigorrezkoa da maskara eta hidrogela erabiltzea.
4. 1,5 metroko distantzia pertsonen artean.

III. ERANSKINA

Akreditatutako prentsari esleitutako guneak egokitzea

Hedabideetako langile akreditatuen sarbidea informazio-lanak egiteko egokitzearen, honako eremu hauetan beste banaketa bat egiteko proposamena erantsi dugu:

Prentsaurrekoen aretoa

Kazetarien gunean bi aulkitik bat kenduko litzateke.

Kazetariak guztira 14 izango lirateke, eserita (aulki osagarriekin, 16), gehi kamerez eta argazkiak egiteaz arduratzen direnak.

Ez litzateke handituko mahaiaren inguruan eserita edo atrilean egon daitezkeen kopurua, ezin baita pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatu.

ANEXO II

Gestión de las visitas de grupos al Parlamento Vasco

1. El horario del servicio de visitas guiadas al Parlamento Vasco queda fijado en dos turnos, con el fin de dar una hora para proceder a la limpieza y ventilación de los espacios:

Primer turno: 10:00 horas
Segundo turno: 12:00 horas

2. El número máximo de asistentes será 25, siempre que se trate de grupos considerados estables. En caso contrario, el número máximo permitido será de 10 personas.
3. Uso obligatorio de mascarilla e hidrogel.
4. Distancia interpersonal de 1,5 metros.

ANEXO III

Adecuación de los espacios adjudicados a la prensa acreditada

A fin de adecuar el acceso del personal acreditado de los medios de comunicación para realizar las labores informativas, adjuntamos propuesta de nueva distribución en los siguientes espacios:

Sala de ruedas de prensa

Se anularía uno de cada dos asientos en la zona de periodistas.

El total de periodistas ascendería a 14 personas sentadas (con sillas auxiliares, 16), más las personas que se ocupan de las cámaras y fotografía.

No se ampliaría el número de personas que pueden sentarse en la mesa o estar en el atril, al no poder garantizar la distancia interpersonal de seguridad.



Akreditatutako prentsaren lan-aretoa

Gune horretan ez da aldaketarik egin behar, zeren, manparen bidez berezita daudenez, 18 langunek orain arte bezala utziko bailirateke.

Idatzizko prentsarentzat leku gehiago behar bada, Tomas Moro aretoan egokituko da.

Telebisten aretoa

Soilik sei pertsona sartzeko baimena emango da (hiru hedabide). Ohiko jarraipena ETBk eta TVEk egiten dutenez gero, hedabide horiei lehentasuna emango zaie areto honetan kokatzeko garaian.

Telebistentzako leku gehiago behar bada, prentsaren lan-aretoa erabiliko da edo, okasio berezietan, Tomas Moro aretoa.

Irrati-kabinak

Eutsi egiten zaio kabina bakoitzeko pertsona baten murrizketari.

Osoko bilkuren aretoko prentsa-palkoa

Prentsaurrekoen aretoko irizpide bera aplikatuko dugu (bi aulkitik bat, ezabatuta).

Osoko bilkura palkotik jarraitu ahal izango duten pertsonen kopurua 18 izango da.

Hedabide grafikoentzako lan-eremua

Tomas Moro aretoan lekua egongo da argazkilari akreditatuek areto honetatik lan egin ahal dezaten.

Hedabide grafikoentzako eremua osoko bilkuretara sartzeko aldean

Alde hau da gatazkatsuena sartzeko baimendu ditzakegun pertsonen kopurua mugatzeari dagokionez, zeren haien helburua baita irudiak hartzea osoko bilkurako une esanguratsu bakoitzean (legebiltzarkideak, lehendakaria, Eusko Jauriaritzako sailburuak sartzan direnean, eta mintzatuko diren hizlariak atrilera gerturatzan direnean ere). Pertsonen mugimendua dagoen tokia da, zeren zenbait plano hartuko baitute leku desberdinetatik.

Halarik ere, pertsonen arteko distantzia segurtatzeko, eta eskaileretako aldeak erabilia ere, ez dira 12 pertsona baino gehiago batera egongo (6 hedabide grafikoek ezkerrean eta beste 6 eskuinaldean, Eusko Legebiltzarraren beraren langileak barne).

Sala de trabajo de la prensa acreditada

Este espacio no necesita modificación, ya que, al estar separados por mamparas, los 18 puestos de trabajo se mantendrían como en la actualidad.

En caso de necesitarse más espacio para prensa escrita se habilitará en la sala Tomás Moro.

Sala de televisiones

Solo se permitirá el acceso a seis personas (tres medios). Como el seguimiento ordinario lo realizan ETB y TVE, se dará prioridad a estos medios para su ubicación en esta sala.

En caso de necesitarse más espacio para las televisiones, se utilizará la sala de trabajo de la prensa o, en ocasiones especiales, la sala Tomás Moro.

Cabinas de radio

Se mantiene la restricción de una persona por cabina.

Palco de prensa del salón de plenos

Aplicaremos el mismo criterio que en la sala de ruedas de prensa (uno de cada dos asientos, invalidado).

El número de personas que podrían seguir un pleno desde el palco ascendería a 18.

Zona de trabajo para medios gráficos

La sala Tomás Moro contará con espacio para que, sobre todo, las fotografías y los fotógrafos acreditados puedan realizar su trabajo desde esta sala.

Zona de medios gráficos en la zona de acceso al salón de plenos

Esta es la zona más conflictiva en cuanto a acotar el número de personas a las que podemos dejar acceder, ya que el objetivo es tomar imágenes de cada momento clave en el desarrollo de la sesión (entrada de las parlamentarias y los parlamentarios, del lehendakari, de los consejeros y las consejeras del Gobierno Vasco, así como salidas al atril de las personas que vayan a tomar la palabra). Es una zona con movilidad de personas, ya que van a tomar diferentes planos desde diferentes puntos.

Aun así, para asegurar la distancia interpersonal, y aun aprovechando los espacios de escaleras, no deberán superar las 12 personas a la vez (6 a la izquierda y otras 6 a la derecha de la zona de medios gráficos, incluyendo el servicio del propio Parlamento Vasco).



Pentsarentzako eremua batzorde-aretoetan

Aretoetako edukiera orokorrari ez eragiteko, prentsa idatziak ezin izango du aretoen barruan geratu jarraipen informatiboa egiteko; arestian aipatu diren eta horretarako prestatuta dauden eremuetatik egingo da jarraipena.

Hedabide grafikoei (kamerari eta argazkilariei) bilkuraren hasieran edo gai-zerrendako puntua aldatzen denean sartzeko baimena emango zaie, batzordearen edo ponentziaren hasieraren irudiak hartzeko.

"Kanutazoak"

Debekatuta jarraituko dute "kanutazoak" deiturikoek (aurreikusi gabeko informazio-uneak), ezinezkoa baita une horietan segurtasun-distantzia ziurtatzea.

Topaketa informatibo informal horiek egin ahal izateko, mikrofono bat jarriko da kanpoaldean, pertsonen arteko distantzia errespetatuta.

Gainerako kontaktu informatiboak prentsa-aretoan egingo dira, atrilean, distantzia hori ziurtatuta dagoen lekuan.

Zona de prensa de las salas de comisiones

Para que no influya en el aforo general de las salas, la prensa acreditada no podrá quedarse dentro de ellas para el seguimiento informativo; el seguimiento se realizará desde las zonas habilitadas que se han relacionado previamente.

Sí se permitirá el acceso de medios gráficos (cámaras y fotógrafas y fotógrafos) al inicio de la sesión o con el cambio de orden del día de la sesión para realizar tomas del comienzo de la comisión o ponencia.

"Canutazos"

Los denominados "canutazos" (los momentos informativos no previstos) seguirán estando prohibidos, porque en ningún momento se puede asegurar la distancia de seguridad.

Para poder realizar estos encuentros informativos informales con seguridad se colocará un micrófono en el exterior, de manera que se mantenga la distancia interpersonal.

El resto de contactos informativos se realizarán en sala de prensa, en atril, donde está asegurada esta distancia.

DEIALDIAK CONVOCATORIAS

2021eko urriaren 29rako izendatu den ohiko osoko bilkurarako deialdia
(12/08.03.00.00065)

Lehendakari honek eta Bozeramaileen Batzarrak 2021eko urriaren 26an egindako bilkuran hartutako erabakia betez, agintzen dut Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila 2021eko urriaren 29an, 09:30ean, egingo den osoko bilkurako gai-zerrenda.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

Gai-zerrenda

- Galdera, Gorka Álvarez Martínez Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari egina, Administrazio elektronikoaren arloko aurreikuspenei buruz.
- Galdera, Maddalen Iriarte Okiñena EH Bildu taldeko legebiltzarkideak lehendakariari egina,

Convocatoria de pleno ordinario señalado para el día 29 de octubre de 2021
(12/08.03.00.00065)

En ejecución del acuerdo adoptado por esta Presidencia y la Junta de Portavoces en sesión celebrada el día 26 de octubre de 2021, se ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del orden del día de la sesión plenaria que se celebrará el día 29 de octubre de 2021, a las 09:30 horas.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

Orden del día

- Pregunta formulada por D. Gorka Álvarez Martínez, parlamentario del grupo Nacionalistas Vascos, a la consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, sobre previsiones en el ámbito de la Administración electrónica.
- Pregunta formulada por D.ª Maddalen Iriarte Okiñena, parlamentaria del grupo EH Bildu, al

